

KOMUNIKABIDEENTZAKO OHARRA:

GAIA: IRUNGO BELASKOENEA, DUNBOA ETA ELATZETA IKASTETXEEK 50/50 PROIEKTUA GARATUKO DUTE UDALAREN LAGUNTZAREKIN

Irungo Udalak eta hiru ikastetxeek Europa mailako proiektua abiarazi dute 2021/2022 ikasturtean, eskola-komunitatea energia-arloan ahaldundu eta ikastetxeetako energia-kontsumoa murriztu asmoz.

Energia-taldea sortuz abiatuko dute eskolek Euronet 50/50 proiektua, bertan, ikasleekin batera, irakasleak, administrariak, atezainak eta mantenuko langileak ere izango dira.

Ondoren, ikastetxeetako azpiegitura energetikoak ikuskatuko dituzte eta, fakturak aztertuz, ikastetxeko energia-kontsumoa ezagutzeko diagnostika osatuko dute. Ateratako ondorioekin, neurri zuzentzaileak jasotzen dituen ekintza-plana osatuko dute ikastetxeek, betiere, energia arloko ohitura egokiak barneratu eta kontsumoak murrizte aldera.

Proiektuari esker, ikasturtean aurreztutakoaren % 50 ikastetxeari itzuliko zaio eta ikastetxeak erabakiko du zertara bideratu. Gainerako % 50 udalak inbertituko du, ikastetxeetan bertan energia-aurrezpen eta -eraginkortasunerako hobekuntzatan.

Euronet 50/50 max proiektua

Europa-mailako proiektu honek eraikin publikoetan energia aurreztea sustatzen du helburu, erabilera

NOTA DE PRENSA:

ASUNTO: EL AYUNTAMIENTO DE IRUN IMPULSA EL PROYECTO 50/50 EN LOS CENTROS ESCOLARES BELASKOENEA, DUNBOA Y ELATZETA

El Ayuntamiento de Irun y los tres centros escolares han puesto en marcha, en el curso 2021/2022, un proyecto europeo para empoderar a la comunidad escolar en el ámbito energético y reducir así el consumo energético de los centros escolares.

Las escuelas iniciarán el proyecto Euronet 50/50 con la creación del Grupo de Energía, en el que participarán, junto con los y las escolares, el profesorado, el personal administrativo y de mantenimiento, porteros, etc.

Posteriormente, inspeccionarán las infraestructuras energéticas de los centros escolares y, analizando las facturas, completarán el diagnóstico para conocer el consumo energético del centro. Con las conclusiones obtenidas, los centros elaborarán un plan de acción que incluirá medidas correctoras orientadas a la adquisición de hábitos energéticos sostenibles y a la reducción de consumos.

Gracias al proyecto, el 50% de lo ahorrado durante el curso se le devolverá al centro y éste decidirá a qué destinar ese dinero. El 50% restante será invertido por el Ayuntamiento en mejoras para el ahorro y la eficiencia energética en los propios centros escolares.

Proyecto Euronet 50/50 max

Este proyecto europeo promueve el ahorro energético en edificios públicos a partir del uso y una

egokitik eta energiaren kudeaketatik abiatuta. 50/50 da erabiltzen den metodologia: alegia, pizgarri ekonomikoak sartzea lorturiko aurrezpen energetikoaren alde.

[Euronet 50/50 max](#) ekimenean Europako 13 herrialdeetako 525 ikastetxek parte hartzen dute 50/50 proiektuan, orotara 99.000 bat ikasle eta 7000 bat irakasleren inplikatur.

Irungo Udalak, 50/50 proiektuan parte hartuz, ikastetxe zein herritarren artean energia aurrezpenerako eta kontsumo arduratsurako ohitura egokiak zabaldu nahi ditu ere, energia-kontsumoa gutxituz, tokiko zein mundu mailako eragina duen klima-aldaketa ere murrizteko.

Irunen, 2021eko urriaren 19an

gestión adecuada de la energía. La metodología utilizada es el 50/50, es decir, introducir incentivos económicos a favor del ahorro energético conseguido.

En la iniciativa [Euronet 50/50 max](#) participan 525 centros escolares de 13 países europeos en el proyecto 50/50, implicando a un total de 99.000 escolares y 7000 docentes.

El Ayuntamiento de Irun, a través de su participación en el proyecto 50/50, pretende también difundir, entre los centros escolares y la ciudadanía, hábitos sostenibles de ahorro energético y consumo responsable, con el objetivo de reducir el consumo energético, y en consecuencia, el cambio climático.

En Irun, el 19 de octubre de 2021